

Jakiundek emakumeak zientzietan, arteetan eta letretan duen papera ikusarazteko erakusketa bat aurkeztu du

- *24 emakume-mujeres-femmes* erakusketa Donostiako Zuloaga plazan jarriko da ikusgai, otsailaren 6tik 27ra bitartean, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren hilarekin bat etorriz.
- Aire zabaleko erakusketarekin batera, solasaldi-ziklo bat izango da San Telmo Museoan.
- *24 emakume-mujeres-femmes* erakusketak Euskal Herriko kaletan eta plazetan zabaldu nahi du bere mezua.

2024ko otsailaren 1a, Donostia. Jakiunde, Euskal Herriko Zientzia, Arte eta Letren Akademiak, *24 emakume-mujeres-femmes* erakusketa aurkeztu du gaur Donostiako San Telmo Museoan. Jakiundeko zenbait kideren 24 argazkiren bitartez, emakumeek zientzietan, arteetan eta letretan duten papera ikusarazi nahi du Euskal Herriko kaleetan eta plazetan.

Gizarteari egungo errealitatea erakusteko eta etorkizuneko belaunaldiak inspiratzeko asmoz, aire zabaleko erakusketak, ibilbide profesional luzeak egin ondoren, beren diziplinetan bikaintasuna lortu duten akademikoak aurkezten ditu, bai eta lanean puntako jarduerak gauzatzen dituzten akademiko gazteagoak ere.

Erakusketak Donostian egingo du lehen geldialdia, zehazki, Zuloaga plazan. Otsailaren 6tik 28ra izango da ikusgai, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna (otsailaren 11) biltzen duen hilarekin bat etorriz.

Jakiundek, urtean zehar zientziak, arteak eta letrak sustatzeko jarduera ugari antolatzen dituzenez, gaur egungo erronkarik garrantzitsuenetako batean jarri nahi izan du arreta oraingoan: gizarteak aurrera egiteko funtsezkoak diren jakintzaren arloetan emakumeek egiten duten lana ikusezin bihurtzen duten ohitura sozialak gainditzea.

«Neska-mutilek aukera-berdintasunean ikasi eta lan egin ahal izan dezaten edozein diziplinetan, bizitzaren arlo guztietan emakumeek zer presentzia duten jakin behar du gure gizarteak, eta hori ikusarazi egin behar dugu. Emakumeek zientzietan, arteetan eta letretan lan egiten, laguntzen eta gozatzen dute», nabarmendu du gaur prentsaurrekoan Jakiundeko presidente Juan Ignacio Pérezek.

Bestalde, Mariasun Landa idazleak erakusketari buruzko testu poetiko bat irakurri du.

Hala, Vicomtech-eko Garraio Sistema Adimendunen Saileko zuzendari Oihana Otaegik esan duenez, “erakusketa honetako eta Jakiundeko kide eta, nire bizitza profesionalean, ikertzaile bezala, erakusketa hau bezalako ekimenak biziki estimatzen ditut eta oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit; emakumeek zientzia, arte eta letren arloetan duten presentzia eta ekarpen baliotsuak nabarmentzea helburu dutenak, hain zuzen ere.

Funtsezkoa da emakumeak sektore horietara erakartzea eta erakustea rol profesional hauetan karrera egitea ez dela anomalia bat, normala izan beharko lukeela". Azken urteotan neskatuen eta nerabeen artean emakumeek zientzian duten ikusgarritasuna sustatzeko ahaleginak areagotu egin direla ikusi dugun arren, argi dago oraindik bide luze bat dugula egiteko.

Pozgarria da, pixkanaka, gure eremua zabaltzen ari den aldaketa positibo bat ikustea. Ariketa horretan, funtsezkoa da edozein neskatok eremu horietara sartzeko ahalmena baduela nabarmentzea.

Erakusketa honek erakusten digu gure gizartean emakume arruntak jakintza-arlo desberdinetan gabiltzala, gure komunitatearen aurrerapena bultzatzen. Funtsezkoa da neskek eta nerabeek zientzian arrakastatsuak diren emakumeen gertuko adibideak ikustea, beren buruari esan ahal izateko beraiek ere urrats horiek jarraitu ditzaketela, beraiek ere komunitate honen parte bihurtuz.

Bestalde, Ikerbasqueko (DIPC) ikertzaile Aran García-Lekuek zera azaldu du: "ni zientzialaria naiz, fisikaria. Gure eremuan emakumezkoak gutxiengoa gara, bai...baina ez gara hain gutxi!! Gauza da ez gaituztela asko ikusten; postu ikusgarrienetan, postu gorenetan, normalean gizonezkoak baitaude".

Horregatik, Jakiundek antolatutako ekimen hau bezalakoak ezinbestekoak dira... emakume zientzialariak, idazleak, ekonomialariak, artistak... plazara! Baina ez hori bakarrik, Ruth Bader Ginsburg abokatu estatubatuarrak zioen bezala: "emakumeek, erabakiak hartzen diren toki guztietan egon beharko lukete". Ea ba, plazan hasita, pixkanaka-pixkanaka horretara heltzen garen!

Solasaldi osagarriak

Erakusketarekin batera, Jakiundek solasaldien ziklo bat antolatu du. San Telmo Museoan egingo dira otsailaren 6an, 21ean eta 27an, 19:00etan. Hizlarietako batzuk protagonista dira erakusketan, hain zuzen ere Conchi de la Rúa, Naroa Ibarretxe, Helena Matute eta Itziar Alkorta. Antolatutako hiru solasaldietako gaiak San Telmo Museoak antolatutako *Garuna(k)* erakusketaren osagarriak dira.

Erakusketa ibiltaria

Lehen geldialdia Donostian egingo badu ere, *24 emakume-mujeres-femmes* Euskal Herriko beste toki batzuetara iristeko asmoarekin sortu da. Hurrengo geltokia Iruña izango da, eta abuztuan, Uxuen jarriko dute ikusgai, Jakiundek Nafarroako herri horretan antolatzen duen udako ikastaroen harira, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (UPNA/NUP) udako ikastaroen barruan. Gainerako tokiak datozen hilabeteetan ezagutaraziko dira.

Jakiundek sustatutako ekimenak Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, Nafarroako Gobernuaren eta Laboral Kutxaren babes du.

Jakiunderi buruz

Jakiunde gizartearen erronka garaikideen aurrean hausnartzeko foroa da. Ezagutzan eta zorroztasun zientifikoan oinarrituz, zientzien, arteen eta letren arteko jakintza-trukea bultzatzen saiatzen da. 2007ko urriaren 25ean eratu zen Eusko Ikaskuntzaren ekimenez, eta euskal hizkuntza eta kulturak finkatuta dauden lurraldean kokatutako Unibertsitate guztien laguntzaz. 2009tik erakunde independentea da Jakiunde, eta 2019an eskuratu zuen herri-onurako erakunde aitortpena. Bere helburua da gaur egungo arazoei irtenbide egokiak aurkitzeko asmoz gizartearekin hausnarketa partekatzea. Jakiundeko lehendakari Juan Ignacio Pérez Iglesias UPV/EHUko Fisiologia katedradunaren eta ohorezko lehendakari Pedro Miguel Etxenike UPV/EHUko Materia Kondentsatuaren katedradunaren gidaritzapean, dagozkien arloetan prestigio handia lortu duten pertsonak biltzen ditu. Kideek aintzatespen publikoa jaso dute zientzia diziplinetan, arte eta literatura sorkuntzan eta pentsamendu kritikoa egindako lanagatik, eta sari garrantzitsuak eskuratu dituzte, bai hemen bai nazioartean, hala nola Ikerkuntzako Euskadi saria, Vianako Printzea saria, Eusko Ikaskuntza saria eta Asturiasko Printzea saria.

Informazio gehiago eta elkarrizketak

Ane Muñoz

ane@alambre.net

620423209

SOLASALDIEN PROGRAMA

OTSAILAK 6 - 19:00 - STM

Giza garuna moldatzen: familia- eta gizarte-ingurunearen eragina

Beste edozein izaki baino babesgabeago jaiotzen dira gizakiak. Eragin genetikoak, esperientzia goiztiarrak, eta familia- eta gizarte-ingurunearen eragina uztartzen ditu haur-garunaren plastikotasunak, batez ere, lehenengo urteetan. Horregatik, etapa horretan jasandako kontrako gertaerek rol garrantzitsua dute adingabeen etorkizunean. Maila psikologikoan eta sozialean jardutea funtsezkoa da adingabeek estresari aurre egiteko indarrak garatu ditzaten.

OTSAILAK 21 - 19:00 - STM

Giza garunaren azterketa Neurozientziaren eta Eboluzioaren ikuspegitik abiatuta

Neurozientziak eta garapen paleontologikoek gure espeziearen garunaren eboluzioa argiago ikusten laguntzen digute, gizadiaren historiaren azken bi milioi urteetan barrena bere funtzionamendua moldatu duten faktoreak aztertuz.

OTSAILAK 27 - 19:00 - STM

Isuri edo sesgorik gabe pentsatu dezakegu?

Isuri kognitiboak ez dira gizakienak bakarrik, adimen artifizialetan ere gertatzen dira. Nola gertatzen dira isuri diskriminatzaileak eta zergatik espero daiteke etorkizunean ere gertatzea? Joera horren inplikazio psikologikoak eta legezkoak aztertuko dira solasaldian.

